113M1MI UNAI CUESTA • GEHIGAR° GAZTIA NAIZ BARREN

KI110IU PAKO IRIONDO EUSKA OKO OHOREZKO LEHENDAKARI

# 13aRRen 1

ASTEKARIA




## UNAI CUESTA:

# “Arte martzialen bidez hasi nintzan japonesa ikasten”

ij iHITZ EGINEZ IJI.ERTZEN DA JENDEA n lEscera Zaharra)

HURBIL
Zerbitzu I nformatikoak, S.L.
AKADEMIA
BEEP

ELGOIBAR 20870
San Inazio, 4
195 Posta-kutxatila
Tel. 943 74 08 50
Fax: 943 74 29 18
E-posta: belgoibar@datalogic.es

BERGARA 20570
T. Aranzadi, 3
Tel. 943 76 91 27
Faxa: 943 76 93 25
E-posta: bbergara@datalogic.es

k E.NI7.11,11
5.1\PM
19 0
O,S7 P\R

# Nahi izanez gero, moduloak banaka egin dlizakezueli

## HASTEAR DAILIDEN IKASTAROAK

### INFORMATIKAKO IDAZKARITZA

| MODULOAK | ORDUAK |
|---|---|
| Mekanografia | 100 |
| Windows 98 | 10 |
| Word 2000 | 20 |
| Excel 2000 | 20 |
| Acces 2000 | 20 |
| Kontabilitate teorikoa | 30 |
| Kontaplus | 20 |
| Fakturaplus | 20 |
| Nomina teorikoa | 30 |
| Nomina Plus | 20 |
| Internet | 15 |

### ORDENAGAILUEN TEKNIKARIA

| MODULOAK | ORDUAK |
|---|---|
| Hardwarren osagaiak | 30 |
| Grabadoren erabilera | 10 |
| CD-ROMen erabilera | 5 |
| DVDen erabilera | 10 |
| Inprimigailuen erabilera | 5 |
| Wcamen erabilera | 10 |
| Scannerren erabilera | 10 |
| Sistema eragilearen mantenimendua | 10 |

### OFIMATIKAKO TEKNIKARIA

| MODULOAK | Orduak |
|---|---|
| Windows 98 | 10 |
| Word 2000 | 20 |
| Excel 2000 | 20 |
| Acces 2000 | 20 |
| PowerPoint 2000 | 20 |
| Outlook | 10 |
| Publisher | 30 |
| Frontpage | 30 |

### INFORMATIKAKO OPERADOREA

| MODULOAK | Orduak |
|---|---|
| PC-ra sarrera | 15 |
| Windows 98 | 20 |
| Word 2000 | 30 |
| PowerPoint 2000 | 20 |
| Corel Draw 9 | 30 |
| Mekanografia | 50 |
| Internet | 15 |

larunbatetan irekitaL
Ordutegia: 9:00etatik-22:00etara

IKASTAROAK ZURE ORDUTEGIRA MOLDATZEN DIRA ETA NIBEL GUZTIENTZAKO ESKAINTZA.
BESTE AUKERA BATZUK: Autocad 1-11, SolidEdge 1-11, PowerPoint 2000, Publisher, C++, Java, Visual Basic, Freehand, PageMaker, QuarkXpress, Web orrien sorketa, 3D Studio 1-11, CorelDraw...
IKASTAROEN BUKAERAN DIPLOMA EMANGO DIZUEGU.



## Made in USA

Sekula egin den kanpainarik luze eta garestiena izan omen da. Egia esan, niri guztiak iruditzen zaizkit berdintsuak: urdina, gorria eta txuria nonnahi: pankarcetan, globoetan. eskenatokian... Kandidatuaren korbata gorria baldin bada. alkandora txuria ziurrenik eta trajea urdina... beti ere emaztea alhoan dela. Presidentegaiak emaztea eduki behar du eta honek, kandidatoaren hitzaldiak, mitinak hobe esateko, interes handienarekin entzuten dituenaren aurpegia erakutsi. Irudia da garrantzitsuena. Ah? Eta globoak. Globo anitz. Eta izarrak, Estatu bakoitzeko adierazle diren izarrak eta Hollywood aldeko disdiratsuenak. Irdbarre egiten ere ikasi behar dute, barre algara ez da ona baina hortzak, amerikarren irribarrearen marka eta ezaugarri diren hortz perfektuak erakutsi egin behar dira. Eta kaleko jendearekiko hurbiitasuna azaldu, baina neurri jakin batean. Ez dezagun ahaztu, tnunduko pertsona boteretsuena izango denaren aurrean egon gaitezkeela. Promesak eta promesak eta inkestak, hainbestetan ezagutzera emaren dir.kiguten emaitza egunerokotuak: gaur zein dijoa aurrettk, zenbateko diferentziaz? Eta gaztelarren hizkuntza aintzakotzat dutela azaldu, kanpaina honetan Cervantesen hizkuntzako hiru bat hitz ikasi ala ezagutzen zituztela demostratu digute, nahiz eta patata beroa ahoan dutela ahoskatu. Kanpaina mediatikoa erabat. Eta Gore eta Bushen arteko hauetan, komunikabideetan hain zabaldua izan zen Elian haur kubatarraren kasuak ere eragin izan du seguruenik, Floridan erabakiko haita azkenik, datozen urteotan, USAko gobernu bum izango dena: George Bush ala Gore.

Olga Unzilla





# Game over

**Nork** ez du bere txikitako jostailu gogokoena gogoratzen? Eta jostailua lagun minena izanik, igande arratsetan irudikaturiko koloretako mundua? Gure jostailua aitzakia izanik irudimena eta sorkuntza lantzen genuen, norbemk aukeratzen zuen bere planetaren forma eta kolorea.

Gaur egungo haur gehienek clituzten makintta horietan, ostera, haurraren azkartasuna eta konpetitzeko gaitasuna besterik ez cla lantzen. Guztiz eratua dagoen mundu bat eskaintzen zaio haurrad, hau da, bere mundua ez du berak sorm behar, sortua dagoelako. Umeak mundu horretako abiadurara eta konpetentziara moldatu besterik ez du egin behar. Eskaintzen zaion mundu horretara moldatzen ez bada, hirugarren aukera agortzen zaionean, game over.

Guzti honetan tristeena da makinita hauek gaurko mundua islatu hesterik ez dutela egiten. Gero eta mundu inhumanoago batean bizi gara eta txikienak dira humanitate falta honen lehen sufritzaileak.

Arnaia Lariz

UrruzuNoren begi izkutua ...................
Illotzian koNtatZekuak .................................... 8
GAZte gehigarria .................................... 11
kiROLA .................................... 20
aGenda .................................... 24

2000-X I- 1 0

## LAGUN BATI

Gustura errepikatuko nuke haietako soIasaldi hat, eta gusturago oraindik ikusiko nuke zure irribarrea bosteko hat trukatuz. Baina... ezinaren erronka.

Hiru urte zu gabe. Ez errazak, baina ezta hutsean eroriak ere. Sarritan gogoratzen dut, clenok inahai baten hueltan biltzen ginenean, falta zirenei buruz lana" tokatzen zitzaiela esaten zenuela. Orain egiten ditugunetan zuri tokatzen zaizu. Eta hala balitz hartzen clugu.

Hint urte hauek fnaitu asko ernan dute, hesteak heste kimu herri asko sortu direlako, kutxan gordeta zenituzten ilusio haietako hatzuk egi bihurtu direlako eta garrantzitsuenetako bat, gelditu ginenen arteko harremana mantentzeko aitzaki bihurtu zarelako. Denon arteko lokarri sendo.

Egunerokotasunean murgildurik, pasatuko dira heste hainbat zu gahe, baina zuk zure lekua ongi landua utzi zenuen eta zure hitzen oihartzunak bizirik eta gurekin jarraituko clu nonahi. Eta hori ez digu inork kenduko. Muxu bat Sera. Eta ahaztu gahe gorde iezaguzu lekutxo hat zure ondoan tren hau uztea tokatzen zaigunerako.

I.A.

N.A.N. 15.377.030

## EKEKEI ETA EATAEREN ESKERRAK

2000ko urriaren azken asteburuan EIgoibarren izan diren Antzerki Amateurraren III. Topaketak bukatu direla-eta Ekekei antzerki taldeak eta EATAEk eskerrak ernan nahi dizkizuegu lagundu diguzuen guztioi eta baita ekitaldiak ikustera etorri zaretenoi ere.

Eskerrak ernan hehar dizkiegu gurekin ikastaroan humbelarri izan diren Atxutxiamaikakoei eta EATAEko mutrikuar, zumaiar eta debarrei, ikuskizunak eta erakusketak egin ahal izateko beraien lokalak eskaini clizkiguten Toletxe, Iratxo eta Iriondo tabernei, kanpoko jendeak lo egiteko izan dugun Aubixa barnetegiari, Urruzuno Iiteratur taldeko poernagileei, udaletxeko dirulaguntzari, laguntzen izan diren gure kideei eta azkenik, bereziki, gure eskerrik beroena Elgoiharko Gazte Asanbladari, beraien Gaztetxeko lokaletan, azpiegitura eta tresneria guztia uzteaz gain, jaten ere ernan digutelako behin haino gehiagotan.

Eskerrak eman, baita ere, ekitaldiak ikustera etorri zaretenoi, antzerkia ikuslerik gabe ezer ez baita-eta, hadakigulako ohiturarik ez dagoen tokian zaila izaten dela dagoenad utzi eta gertaera berrietan parte hartzea.

Ea antzerki herdkoiaren ohitura eta gogoa, berriz ere, gure lierrian pizten clugun.

Ekekei antzerki taldea.

kc,e1 larzel izen-abizenak, NAN e relefono zkia

# Urruzunoren
## begi izkutua



Astelehena, goizeko zazpirak eta berrogei eta Teresa beti bezala King-Kongeko zuhitik behera zetorren, ingelesek "bloomy day" bezala definitzen duten neguko goiz ilun batean. Hotz handia, bulanda lepoan eta eskuak poltsikoan. Donostiarantz zihoan *Pesako* autobusa geltokira iritsi berria zen. Hamar bat lagun sartu zain. Zubiak dituen maila haxu eta luze horiek jaisten zituen bitartean, autobus harruan zeuden gizakiei so egitea erabaki zuen egun berriari lehenengo ezagunak aurkeztu nahian, Bien hegiek elkar topo egin zuten. Sugeak txoria lelotzen dtten bezala, azken aurreko jarlekuan leiho ondoan jezarrita zegoen ezezagunaren hegiek zeharo itsutu zuten Teresa. Ohartu zenerako ateak itxi eta Pesa-busa iluntasunean desagertua zen. Dakidanez, Teresak lelotuta jarraitzen du eta negua izan, uda izan, lan eguna izan edo jai eguna izan, goizero zazpiak eta herrogeian King-Kongeko zttbia zeharkatzen du.

Eguzkifie Aranberri

URRUZUNO L1TERAIUR TALDEKOA

ASTE KARIA

BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20970 ELGOIBAR
Tr 943 74 41 12
PublIzitatea:
r 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea..com
Helbide informatlkoa:
www.ihardun.corrdbarren
ARGITARATZAILEA
Elgo•barko Izarra

Efi
ElGOIBARKOIZARRA
[1.1111:1 6,,A$TIA

LAGUNTZAILEA Elgoiharko Udala ZUZENDARIA Fli Arzpuru KAZETARIAK nati Agereazaldegi, Asier Orbea PuounznzaaAndonz AgIrregomezkorla MAKETAIZAJLE0. Gea Ansola ADIGNISTRAVOA Olatz Anrola GERENTZ1A Rata AIVEGOZ, M. Angeles Orluoste. KOLASORATZAJLEAK ATTEG8 Lariz, Unal Argarate, Eguzkine Aranbern, Lorea Perez de Albeniz, Aitor Zabaleta, Lerre Urkidi, Olga Unzilia, Monlse Arregi, Juartito Gorosliza, Amaia Urzetal, lon Gurrutzaga, Ainboa Andonagi, Kokoe K.F. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO EGALOIA Gotzen Garateren liburutik INPRWATEGIA Gertu Koop. E. TIRACA 4.000 ale LEGE GORDAILUA 55-1.038/92 ISSte 1139-1855

*Elgoibarko Udalok, Eusko Jattriaritako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz logundutako aldtkaria.*

kutxa gizarte ekintza obra social

ilDANOBAT

GOITI
GRUPO DANOBAT

# Elgoibart2rak DUAN ZEHAR

• Gizonezko batek Plaza 'rxikiko pergola kendu beltar dutela entzun omen du eta benetan horrela al den jakitea nahi du: "Grazia handja ematen dio Plaza Txikiari eta sepantzioa egiten du Plaza eta Leku-Ederren artean. FIutsune handia geratuko litzateke kenduz gero". Udalera jo clugu ea hau egia den jakiteko eta bertan horrelako gairik ez dela tratatu erantzun digute.



• Haur Hezkuntzako Urasandiko eskolaren aldatnenean izugarrizko **zuloa** dagoeta-eta bere kezka azaldu cligu herritar batek. ¯Urniak hara eruaten ditxugu jolastera eta peligroso dao. Udaletxian ere eskatu dou konpontzeko, baina oinctiok ez dahe ezer ein". Norbaitek konpondu beharko luke.

## KEXAK

• Elgoibartar bat baino gehiago etorri zaigu erredakziora ostiraletan BARREN buzoitik kentzen dietela esanez. Joan den astean gizonezko bat honako kexarekin etorri zen: "BARREN buzoitik kentzen dutenei hueltatzeko eskatuko nieke, eta jasotzen ez baclute behar den lekuan eskatzeko, doan cla-eta".

1.1

**ZIGOR CORNEJOk** 15 egun pasa zituen Republica Dominicanan irailean. Karibeko henialde honek dituen hondartza eta paisaia zoragarnak asko gustatu zitzaizkiola esan digu, "Apocalypse Now pelikulia grabau zaben tokixan egon ginan behin eta ikusi eta segiduan ein jatazen ezagunak pelikulan agertzen dian ibaixa eta palmerak". Paisaiaz aparte jendearen berotasuna eta jaso duten tranaak harritu du gehien Zigor. "Izugarrizko hotelak daude, imajinau ezinezko lujuz beteta, guriak adibidez, 11 jatetxe zitxuan eta baitxa hotel barman batetik bestera mobitzeko tren antzeko bat ere. Hoteletik kanpo errealidadia oso bestelakua da, pobrezia itzela dao. Hala eta guztiz jendiak beti claka irripar bat aurpegixan eta oso edukauak dia atzerritanekin, jende oso jatorra ezautu dou. Hori bai, batzutan agobiau eitxen zera dirua eskatzent hurbiltzen dan jendiakin". Bizitza ulertzeko daukaten ikuspegi ezberdinak ere asko harritu du Zigor, "han eztao estresikan, denboria pasauta clana an¯eglauko dala pentsatzen dabe. Azkenerako zuri ere pegau eitxen jatzu bsaitxasun hori".

V771:777
VIAJES 131DAIAK
31L3RCI EXPQESS
BIDAIA AGENTZIAK BABESTUTAKO ATALA
Foruen enparantza, 3• Tel: 943 74 39 12

Barrak, Birrak eta Barreak



Derrigorrezko soldadutzaren azken zozketa egin da aste honetan

# GOGOAN AL DAUKAZU SOLDADUTZAKO GARAIA?



## SALBAOOR ZELAIA

**69 urte, jubilatua**

Eskolan ere hantxe ibili nintzan. Soldauzkam jun nintzan 'derecba-izquierda' ez nakixala eta handik ikasitxa bueltau. Oso rekuerdo ona dakat.

## JAVI IZAGA

**31 urte, komertziantea**

Bai, eta ez daukat oroitzapen onik. Hrte oso batez bizitza moztea da eta ez nuke errepikatuko. Gainera, jendeak egin duen inclarrarengatik desagertzera doa,






## VICENTE LAIKANO

**73 urte, jubilatua**

Bai, pasauta nao ta. Han ein, ez genduan ezer ein, denboria pasau. Oin ere derriorra balitz eingo neuke. baina denboria alperrik galtzia dala uste dot.

## ANTONIO GARRIDO

**74 urte, jubilatua**

Bai, bi urte egin nituen derrigorrez eta beste hiru legionario moduan, baina orcluan abenturazaleagoa nintzen. Gaur egun uste dut ez litzatekeela soldadutzarik egon behar.





## 10SU KONDE

**43 urte, mekanikoa**

Bai. Ceutan ein naban eta oso latza izan zan. Denboria galdu eta aipertu ein nintzan gainera. liclan gehixao, erre ere bai, ezer ere ein gabe egon.

## MIKEL MERINO

**38 urte, zapataria**

Nik ez nuen egin entzumen aramak alegant nituelako. baina bertako jendearen tratua oso txarra da. Ordua zen derrigorrezko soldadutza desagertzeko. Gobernuarengatik balitz berdin jarraituko genuke.





*ARANTZA IRIONDO ZULAIKA*

*Oso gogoan izan zaitugu azken hilabetean*
*eta hemendik aurrera ere beti gurekin izango zara.*

*Danobateko lagunak*





# NORBERE f izeon



Albaitaria

# asteko ERREZETA



JOSE LUIS CAMARAren
sukctici ci



**Zergatik lan honetan?**
Bokazioz ikasi nuen aibaitaritza. Txikitatik izan ditut gustuko animaliak eta etxean ere banituenez, beraien osasunak asko arcluratu izan nau.

**Beti lan berean aritu al zara?**
Karrera bukatu ostean beti aritu naiz albaitari lanetan. Aurrez udetan peoitzan, basoan... ere aritu nintzen dirua irabaztekc),

**Zure Ianeko gauzarik onena?**
Satisfazioa. Kasu zail hat konpontzean ugazabak asko eskertzen du.

**Eta txarrena?**
Gauzak norherak nahi hezala ateratzen ez direnean.

**Aldatzekotan, zein lanbide aukeratuko zenuke?**
Mendietako injineru izango nintzateke. Oso mendizalea naiz eta gauza biziekin lan egitea gustuko dut.

**Bizi lanerako edo lan egin bizitzeko?**
Lan egin bizitzeko.

**Lanetik irtendakoan...**
Kirola egiteko, mendira joateko eta lagunekin egoteko aprobetxatzen clut.

**Zuen arloan lan eskaintzarik ba al dago?**
Ez. Alhaitari Iarregi gaude, oscr lanhide pttpularra delako, beraz, lan clemanda oferta baino handiagoa da.

**Osasuna, lana ala maitasuna?**
Osasuna eta maitasuna lana haino garrantzitsuagoak dira.

**Lanean gertatutako anekdotarik?**
Karrera bukatu eta handik gutxtra behi baten erditzera joan eta hi lepo eta hi buruko txahala erditu zuen, harrez geroztik gattza herezi asko ikusi ditut, baina orduan oso bitxia izan zen.

## BAKAILAOA PLANTXAN ONDDO ETA PIPERRADAREKIN

**PIPERRADA**
5 tipula, 5 piper herde eta, 5 piper gorri, juliana erara moztu eta oliotan sueztitu (rehogatu) bigttndu arte. Olioa kendu eta. tomate frijituarekin nahastu. Ondoren, berotu gatza eta piperra botaz.

**BAKAILAOA**
Gezatutako 4 bakailao tajada irinetan pasatu eta ondoren plantxan hi minutuz jarri alde bakoitzetik. Ondoren labean sarm 8-10 minutuz 170 gradutan.

**ONDDO PIL-PIIA**
2 onddo fresko (250 gr.) zatitu eta oliba oliotan herakatz, gatz eta perrexilarekin zartagi baten jarri. Piskanaka bakailauaren ura bota eta harila batekin saltsa Ioditu.
Azpian, plateraren oinarri moduan piperrada jarriko dugu. Honen gainean bakailaua, laminetan ebakita ipiniko dugu. Bukatzeko, gainetik ondcloak eta here saltsa jarriko ditugu eta mahaira ateratzeko prest izango da.

*4.61. jatetxen*

Nafarroa enparantza
Tel. 943 74 12 30 74 37 22



*ESKERTZA*

*2000ko urriaren 17an, 77 urte zituela hil zen BASILIO IGARTUA ARIZMENDIren emazteak, seme-ezkonalaba eta bilobak eta sencliak bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



## Amnistiaren Aldeko Batiordearen zozketa

Amnistiaren Aldeko Batzordeak jakitera eman du bere zozketako zenbaki saritua. 41.061 zenbakiaren jabeak azaroaren 30era arteko epea izango du autokarabana jasotzeko, bestela oparia erreserbako 50.695 zenbakia duenarentzat izango da. Saria eskuratzeko 94 424 92 41 telefanora deitu beharko da. Bestalde, Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Batzordeak herritarrei jakinarazi nahi die gaurtik aurrera ostiralero presoen aldeko enkartelada egingo dutela King-Kong parean anutsaldeko 20:00etan.

## 1Magosto egunal antolatu du Galiza Ebteak domekarako

Urteroko ohiturari jarraituz Elgoibarko Galiza Etxeak 'Magosto Eguna' ospatuko du datorren domekan, hilaren 12an. Galiziatik ekarritako 400 kilo gaztaina egosiko dituzte eta Errioxako 500 litro ardo banant ere bal. Galiza Etxetik herritar guztiak gonhidatuta daudela adierazi digute, eta beti bezakt gaztainak eta ardoa clohainik izango dira. Magosto jaia arratsaldeko 17:O0etan hasiko da Urasancli attzoan (Kalamua kalea, 14 behea) dagoen Galiza Etxean.

# Udalak gune industrialak berritzeko dirulaguntza jaso du IResiderf planari esker

### Bestalde, Mintxetako graden auzia Udalaren aldekoa izan da

-Elgoibarko Udalakk 'Resider' planari clagozkion 6.864.000 pezeta jaso berri ditu. 1995ean Europar Batasunak martxan ipinitako proiektu honen helburua Elgoibarko gune industrialak errekuperatzea da: besteak beste, Kuitur Etxe aldamenekoak eta Urasandiko Fundizioa. Kultur Etxe ondoko etxebizitza zaharrak eta lokalak bota zituzten eta bertan plaza txiki hat egin da, oraindik erabilera zehatzik ez baclu ere. Urasancliko fundizioan, ordea, oraindik ez dute inolako lanik egin. baina plangintzaren barruan dagoenez, Udalaren asmoa berritzea da. Dena den, ez dute zehaztu lanak noiz egingodituzten.



*1998an bota zituzten Kultur Etxe aldameneko eIxeak berfan plaza txiki bal egiteko. Hurrengo berritze lanak Urasandiko fundlzioan egiteko asmoa dute.*



**Mintxetako gradak**

Bestalcle, haizeak eraman zuen Mintxetako graden teilatuaren inguruan ere sortu da zeresanik. Hainhat gorabehentren ostean, attzia Udalaren aldekoa izan da. Honen esanetan, entikuntzan izandako erru haten ondorioz eraman zuen haizeak teilatua, beraz, enpresa konstmktoreari zegokion kalteak ordaintzea. Enpresak ezezkoa eman zuen eta Uclalak erreklamazioa egin ostean, eraikitzaileek ez dute inolako errekurtsorik aurkeztu. Honela bacla, Udalak 4.500.307 pta.ko kulteorclaina jaso beharko du, berak ordaindu baitzituen Mintxetako konponketa lanak.

T- o
LE
TXE

KAMAREROAK BEHAR DikA
© 943 74 16 26

## IMHk Kalitatearen Euskal Fundazioaren eskutik 'zilarrezko Q' saria jaso du



Elgoiharko Makina Erremintaren Institutuak (IMH) Euskalit, Kalitatearen Euskal Fundazioak, emandako 'Zilarrezko Q' saria lortu du. EFQM kudeaketa eredu europarra erahiltzeagatik jaso du izendapena, eta horrelako sari hat eskuratu duen lehen ikastetxe publikoa cla. 'Zilarrezko Q'ak IMHren hobekuntza etengahea baieztatu du. Ondorioz, hernendik aurrera IMH '400 Klub'eko partaide izango da. Taldea, gestioan aurreratuenak diren erakundeen foroa da. Saria datorren abenduaren 19an jasoko dute Euskalitek kalitate sariak hanatzeko Kursalean egingo duen jaialthan,

## Debemeneko hrigada udazkeneko whalizen adar mozketa egiten dihardu



Udazkenero egin ohi duten moduan, aurten ere heniko zuhaitzak inausten hasi dira. Udalak kontratatuta Debemeneko langileek herriko zuhaitzen aclarrak mozten aritu dira aste honetan eta 15 egunen buman lanak arnaituko dituztela uste clute. Inausketa honen helbunta zuhaitzak neguan ahalik eta gutxien kaltetzea eta udaherrian hostoak indarberrituta haztea da. Orain arte Udaleko brigadak zeukan zuhaitzak mozteko ardura. haina aurten Debemenekoek hartu du erreleboa. Zuhaitzen inausketaz ezezik hesiak (seto) mozteaz eta herriko berdeguneetako helarra zaintzeaz ere arcluratuko dira. Inausketa urtean hehin egingo dute eta belarm. beniz, unean hirti edo lau hat aldiz moztuko dute.

_ 2001EKo G I DA KOMERTZ I ALA
PRESTATZEN HAS I A< GARA DAGOENEK

2000. URTEAN AZALDU EZ BAZINEN EDO
ZURE NEGOZIOAREN HELBIDEA
EDO TELEFONDA ALDATU BADA

DEITU
943 74 37 0 4
TELEFONORA





*ngelesa, frantsesa eta alemana jende askok flasten dituen hizkuntzak dira, izan ere, mpresetan gero eta garrantzi gehiago ematen raio atzerriko hizkuntzak menperatzeari. 3aina ez da horren ohikoa japonesa ikasten ari den jendea aurkitzea. Gutxi dira, baina guk horietako batekin egin dugu topo, non eta Elgoibarren. Unai Cuesta karatea ikasten hasi zen lehenik eta japoniarren filosofiak kuriositatea piztu zionez hizkuntzari heldu fon eta piskanaka bertako kulturan ere )arneratu da.*

UN CUESTA

## cponesen fintasunc s(o gustctzen |ctc

• Zer dela eta hasi zinen japonesa ikasten?

Jende gehixena bezela arte martzialen hidez hasi nintzan. Maixu japonesen lihuruak irakurtzerakuan ikusi nahan tradukzittak ez ziala holako argixak, eta ez zala ziurra maixuak han ipintzen zabana esan nahi zaban edo ez. Gero, kuriosidadez Donostian japoneseko klasiak hartzen hasi nintzan oin dala lau urte inguru,

• Ifizkuntza zaila al da?

Ez da hain zaila, beste danak hezala, egunero piska hat eitxen ikasten da. Bi orduko klasiak eukitzen ditxut eta gero etxian pare hat bideo ere haditxut belarrixa piska hat hizkuntzara ohitzeko, Aldizkari bat ulertzera ailegatzia nahiko zaila da, baina ni japonesekin normaltasunez hitz egitera ailegau ezkero pozik egongo nintzake. Baina gustauko jatan noizhait lihuru hat hartu, goitxik hehera irakurri eta ulertzia.

• tlizkuntza ezezik beraien filosofia ere ikasten duzu, ezta?

Karatetik ahjatuta gauzak serixuao hartu eta liburuak irakurtzen hasi nintzan maixuen filosofian sartzeko. Nere buruari japonesen filosofiara ailegatzeko helburua ipini nion, eta hizkuntzia jakitziak horretarako erreztasuna emango ziala pentsau nahan.

• Japoniarren filosofiatik zer duzu gustukoen?

Beti pentsatzen daude, edo XIX. mendera arte behintzat pentsatziari garrantzi haundixa eman diote. Gauzak oso sintetizauta eta askatasun haundixakin eitxen ditxue. Gainera, oso finak dia. Lehen, danak zian artistak, lanbide hakoitza artia zan, eta aintzinako filosofia horretatik zeozer gerau jaktte. Euren kemena eta fintasuna da gehixen gustatzen jatana.

• Ba al daukazu japoniarrekin harreman zuzenik?

Bai, askotan Donostiara etortzen dia ikastera, eta nere intkaslian lagunak ere etorri izan dia hisitan. Lagunak ein ditxugu eta dozena pare hat edo ezautzen ditxugu. Ez naiz inoiz Japonen egon baina egunen haten joango naizela uste dot. Dinia eta denboria euki bihar dia, kontaktuak hehintzat baditxut.

111 japoniarrak hemendik ikusten ditugun bezalakoak al dira?

Mac Donals eta halakuak sartzen hasi zianetik gaztienak aldatzen jun clia, eta kanbixua oso drastikua izan da. Lehen erabat japoniarrak zian eta oin amerikanuak, Argazki kamariakin ikustia ere normala izan leike neurri hatian. japonesek astebeteko oporrak bakarrik ditxuzte eta biajiak ein arren oporren zentzua bueltan argazkixeri begiratzerakuan hartzen clabe. Lana eitxen ciaben japoniarren bizitza oso esklabua da, deni)orian menpe bizi dia. Ikasten dabenek, berriz, kanpora juteko aukera haundixak eukitzen clitxue.

• Beraz. ez litzaizuke gustatuko beraiek bezaia bizitzea?

Ez, nik heraiek bezalaxe eingo nuke. Zeozer gustau ezkero hartu eta norbere emra moldatu.

# Gaztia BaRRen

NAIZ



# GAZTEEN ERRELEBOA 'KOKOE'N

LEa GAIA LotsagabE INAKI ANSOLA GalthEa INTERESATZEN ZAIZKIGUNAK

UEK

KEU

Etsaiak eta Psychophony taldeetako Keu gitarrajoleak bakarka arp,itaratzen duen estraineko cliskoa dugu I 'EK. Bestalcle, bere bi takleetako cloinuekin zerikt tsirik ez cluten estiloak jorratzen ditu hemen. Lan honetarako hainbat taldetako musikari eta adiskidez inguratu da, besteak beste. Norton cEI1 Sukarno teldatuetan, luanito < Ekon ) eta Etsaiak ) haterian ecit ›ta Oscar Barrio gitana flamenkoan. Zazpi abesti instrumentalez osatutako lan freskoa aurkezten Keu onclarrittanak.

"Momentu bakarm"ren jazz-fusio nuak et.tskal merkatuan ezohikoa clen disko batekin aurkitzen garela oltartarazten gaitu. Unanue kamara koralaz lagunduta "Zain¯ euskal preso eta errefuxiatuei eskainitako abesti lasat eta malenkoniatsua da. "12-N¯ da, duclarik gal1e, kanta n)ckeroena, gitarra eta meiodia indartsuak nagusitzen dira bertan. "IntuiciOn-Batetik 1>estera¯ abestian, berriz, < )scar Banioren gitarra flamenkoa gehitzen zaio Keuren gitarra elektrikoari.

Bante sentimenduak, txikitako oroitzapenak... gzttak g,itarraren bitartez adieraziak. Azken bateatt, intimismoa, barnikotasuna nabannentzen da clisko honetan. lnstntmentala den aldetik ez da publiko zabal bati zuzendua, haina cludarik gabe, lan mamitsua eta interesgarria.

Jon Gurrutxaga






ANDER SANCHEZ, JAIRO IBARRA eta

# Gaztbfri errEit

**ANDER SANCHEZ, JAIRO IBARRA ETA DAVID GARRIDO 17 ETA IS URTEKO 3 GAZTE ELGOIBARTAR DIRA. MARRAZTEA GUSTUKO IZAN DUTE BETIDANIK ETA DUELA 2 URTE INGURU KOKOE KOMIKI ELKARTEAN SARTU ZIREN, HIRURAK ERE PLASTIKAKO IRAKASLEAK ANIMATUTA ETA GOMENDATUTA. ELKARTEA SORTU ZELA 10 URTE BETE DIRA AURTEN, ETA KOKOEKO KIDE BETERANOENEK ELKARTEA GAZTETZEKO ASMOA AZALDU DUTE. HAIN ZUZEN ERE HAU IZANGO DA GURE 3 PROTAGONISTEN EGINBEHARRA.**

-KOKOEko kiderik beteranoenek, gazteen eskuetan Iaga nahi dute elkartearen etorkizuna. Nola ikusten dituzue zuen buruak? Gogorik behintzat ez zaigu falta, gustatzen zaizkigun gauzak baitira. Dena den, oraingoz beraien babesa eta laguntza ezinbestekoak zaizkigu, errespontsabilitate handia baita. Bestalde, gazte gehiagoren beharra dugu, oraingoz hiru besterik ez g-aude eta. Ez clago zertan komikiak marrazten jakin beharrik, komikiak atsegin izatea nahlkoa cla elkarteko kide izateko.

-KOKOEK, zuen afizioa gauzatzeko aukera eskaini dizue, ezta? Bai, hala da, KOKOE ez balitz egongo, agian ez ginateke komikiaren munduan egongo edo zailagoa izango litzateke honetan hastea.

-Elgoibarren ba al dago komikiarekiko zaletasunik? Ez clago zaletasun handirik. Umeen gauza bat izango balitz moduan ikusi izan da komikia betidanik. Arte minoritarioa izan da, haina ez hemen bakarrik, Japonen izan ezik heste leku guztietan marginatu izan clute. Eta bestetik, denbora libre asko behar da komikietan tzeko eta orokorrean nahiko alpe-



David Garrido

VID GARRIDO

# JUd KokoFn

rrak gareia uste dut.

-Komikiak marrazten dituzuenean, zer da gehien gustatzen zaizuena? Prozesu guztia gustatzen zaigu, ideia pentsatzea, gidoia egitea eta man˜aztea. Bestalde, oso arte sinplea dela esan ohi da, haina gauzak aclierazteko aukent hancliak eskaintzen ditu. hi arte batzen baititu, marrazkia edo truclia eta literatura.

-Zer da zailena? Zailena denbora edukitzea da. Batzutan hehin eta berriz hasi hehar haituzu, birietaren bat ez zaizulako nahi cluzun moduan ateratzen. Dena den, marniztea, ia herez irtetzen cla, gustukoa baitugu.

-Zer teknika erahiltzen dituzue? Arkatza eta rotrinarekin egiten ditugu komikiak, baina batzutan ordenagailuarekin ematen clizkiogu azken ikutuak, koloreak, etah. Oso praktikoa da, baina ordenagailuak berotasuna kentzen dio komikiari.

-Ba al daukazue gustuko pertsonaiarik? KOKOEn sartu aurretik jende guztiak ezagutzen dituen komikietako pertsonaiak bakarrik ezagutzen genituen, Mortadelo eta Filemon eta antzerakoak. Gero libumtegiko komikiak irakurtzen hasi ginen eta baita KOKOEkoek gordeta dituztenak ere, mordo bat haitituzte. Niri (David) HellBoy pertsonaia asko gustatzen zait, Mike Mignola da autorea, eta baita Underground izeneko komiki lihunta ere.

-Zer iritzi duzue `Manga' komikiei buruz% Ez zaizkigu gehiegi gustatzen, bata bestearekin nahiko herdinak clirela iruditzen zaigu, hala ere, esan hehar da oso ondo eginak daudela.



Ander Sanchez

Jairo Ibarra



## GAUAREN MUTURRERAINOKO BIDAIA

### LOUIS-FERDINAND CÉLINE

Louts-Perdinand Celine 1894-1961) polemikak zipriztindutako idazlea da gaur egun ere. Tuduen aurkako bere pentsakerak, bere buruen aurkako kritikak ere ekarri ditu.

Igela argitaletxe nafarrak argitaraturiko "Gauaren mutu rre ra noko bidata¯ hau, berak idatzitako lehenengo nobela izan zen eta bertan mecliku anarkista eta ihiltari baten goral)eherak azaldu zituen. Idazlan honi buruz, iritzi oso ezberclinak daude. Pio Baroja euskal idazleak, esaterako. ¯higuingarria, eskatologikoa clena ps )pio bilatu" zttela leporatu zion frantziarrari. Jane Bowles-ek, alcliz, "muncluko idazle onenetakoa¯ zeia aipatu ztten.

Lotsagabea, kritikoa, inmcr rala, tarteka da eleberri hau. Edonola ere, "Gauaren muturrerainoko biclakt¯ lihuru mardul hau trakurtzean, ukaezina da idazie on hatekin egiten dugula topo.

Jon Eugi



# Aknea



## Granoak arazo dirEnEan

**AknEa, adolEszEntziako gaixotasunik ohikotnEtakoa da. AurpEgiko, lepoko, sorbaldEtako Edo bizkarrEko sEgo-guruinak handitzEan sortzEn da. EfEktu hormonal batEn ondorio izan ohi da, Eta azalEko baktEriek arazoa areagotzEn dutE. AknEa gaixotasuna ezEzik problEma EstEtikoa ErE bada eta ondorio psikologikoak Eragin ditzakE, konplEjoak Edo lagunEn burlEi bEldurra izatea, esaterako. Baina buruari buEltak ematen aritu bEharrEan Edo ispilu aurrean jarri eta granoak lEhErtzEn ibili ordEz, irakurri aknEari buruz Susana Bildosola, Urola ZEntro Medikoko doktoreak emandako argibideak eta baita gaitzari aurre EgitEko proposatu dizkigun gomEndioak ErE.**

2000-XI- 10



Fdozein adinetan ager claitekeen arren nerabezaroan izatea da ohikoena: 14 , eta 17 urte bitartean nesketan eta 16 eta 19 urte artean mutiletan. Gainera, gizonezkoetan arruntagoa da eta baita handiagoa ere. Emaktuneetan aknearen kalteak txikiagoak hadira ere urte gehiagotan iraun dezakete.



Familiatik etor claitekeen gaitza da, hau da, genetikoki, baina nerabe guztietan ez da era berean garatzen, ingurugiroak, faktore ernozionalek, hormonalek eta kosmetikoek zeresan handia dute gaitzaren garapenean. Gainera, granoak zirikatzen ibiliz gero infiamazioa handitu egingo da.
Aknearen seinaleak folikulu pilosebazeoak ugari diren azaleko guneetan agertzen dira, aurpegian eta bizkarrean batik bat, azal koipetsua, granoak... dira aknearen seinale. Kalteak, berriz, mantxa gord txikietatik hasi eta orhainetara bitartekoak izan daitezke.

**AknEa gEnEtikoki sor daitEkEEn gaitza da, baina adolEszEntE guztiEtan EZ da bErdin garatzEn**

Sarritan entzun izan dugu badirela hainbat jateko gaixotasun horreriko joera areagotzen dutenak, baina hori oraindik probatzeke dago. Dena den, aclituek grasa asko duten janariak ez hartzeko gomendatzen dute. Urteetan aurrera joan ahala, ordea, desagertu egin ohi dira granoak, baina komenigarria da jaboi urez goizez eta gauez garbitzea eta lozio astringenteak zein antiblotikoak erabiltzea,

r wirsi-eoli -11 4 Crd Villrllamilra irl 4 v- 1
z'....1.1.111.1.14.111, 51451.1.131...1"11,115
i



## JANARIA ZAINDU

@ Egunean bi litro ur edan eta odola garbitzeko infusioak hartu. Bestalde, egunean lau pepino zuku hartzea odola eta sistema linfatikoa garbitzeko lagungarria da.

@ Ez da gornendagarria kafea, tabakoa eta alkohola kontsumitzea.

- Barazki freskoak eta frutak jan, entsaladan edo ta piska bat egosita; edo zuku naturalak eginda edan. Esneki asko hartzea ez da ona gantz-azidoak battituzte.

@ Azukrea gutxi erabiltzen saiatu eta fibra askodun dieta egitea ona da.

GARBIKETA

e Azala ongi garbitzea komeni da sego-guruinak infekta ez daitezen. Aurpegiak edo kaltetutako guneak azufrea duen jaboiarekin egunero garbitu. Granoak **ukiniz** gero infektatu egin daitezke eta ondorioz, orbainak geratu. Aurpegia garbitu ondoren ezkai-urarekin igurtzi.

• Gauetan kaltetutako guneetan benzol peroxidoa duen gela eman. Kosmetiko edo krema koipetsuak ez erabiti, ezta bromuroa edo ioduroa duten sendagaiak ere.

## BESTE GOMENDIO BATZUK

@ Berakatzak bakterta eta onddoen aurkako propietateak ditu, beraz, gauean granoak dauden gunea berakatz hagin batekin igurtzi daiteke.

@ Izpi ultramoreek aknea arintzen laguntzen dute, beraz eguzkia hartzea azalarentzat ona da, beti ere gehiegizko radiazioa txarra dela kontutan hartuta.

@ Ariketa fisikoa egin eta mendian paseatu.

@ Komunera joateko gogoa izanez gero ez da ona aguantatzea, idorreria kontrolatu.

gaztea



# DIRUAREN EZ1N ASEA

**Gero eta entzunagoak ditugu azkenaldian sekula aurrez entzun edo gertatu gabeko arazoak. Batetik behi-zoro, oilo, zein txerri kumeen hormona bitxieri buruzko gertaerak, bestetik elikagaien gene aldakuntza neurri gabea ( lur Berri kooperatiban gertatutakoa adibide ), inguru giroaren gainbehera, eta baita agian hain ezagunak ez diren hitz berrien jarduera; Globalizazioa, bio-globalizazioa, neoliberalismoa, merkatu librea, etab. luze bat. Azken finean, eredu sozio-ekonomiko industrial asegoitz bakar baten aurrean finkatzen gaituzte, gure osasunaren ziurtasun eza areagotzen delarik. Merkataritza, zerbitzu eta diruaren espekulazioa gutxi ez eta orain bizitzari dagozkion oinarrizko elementuekin jolasten aberasten direla ohartzen gara ( gene manipulazio, Idonazio, etab.).**



11101 11111

Politika lehiakor guzti hauen erruz, gero eta nabariagoak dira baserritar, nekazari, merkatalgo, herrialde txiro eta gu guztiok paiaratzen ditugun egoera nahasiak. Multinazional gutxi batzuen kuetan Ioturik egotera behartzen gaituzte, benetan zer direnik ere jakin gabe ( Banco Mundial B.M., Fondo Monetario Internacional F.M.I., eta Organizaci6n Mundial del Comercio O.M.C.-ak multinazionalekin eta estatu boteretsuenekin elkarlanean uztartuak).

Larriena, ordea, naturak jasaten duen tratu txarra eta herrialde txiroek( nahiz eta jatorriz alderantziz izan) pairatzen dituzten egoerak dira ezbairik gabe. Azken hauek, kate motzean lotunk, bururik alt,satzeko aukerarik ez eta `kanpo xorra' kentzeko ahaleginean, beraien aberastasun guztia kanpora exportatu eta bertako biztanleria gogorki sofritzera derrigortzen baitituzte.

